

IRAKURKETA-GIDA

Jara

Jasone Osoro

begiko

Jara

Jasone Osoro



LIBURUAREN AURKEZPENA

Egilea

Jasone Osoro Igartua Elgoibarren jaio zen 1971n. Kazetaria da lanbidez eta prentsan aritu izan da, bai irratian, bai telebistan.

Lehenbizi helduentzat idazten hasi zen Jasone, baina 2001ean Jara pertsonaia sortu eta izen bereko liburua idatzi zuen gazteentzat. Liburu horrek berehalako arrakasta lortu zuen nerabeen artean. Gero beste bat etorriko zen. Eta beste bat... Gaur egun lau liburuk osatzen dute Jara saila: *Jara; Jara, bikiak eta bikoteak; Jara Bartzelonan*; eta *Jara live*. Liburu hauek hainbat sari eta aipamen jaso dituzte: Liburu Gaztea, JUUL sariak...

Jara sortu zuenetik Jasone erreferentzia bilakatu da baita gazte literaturaren alorrean ere.

Liburua

Jarak 13 urte ditu eta emakume bihurtzen hasia da. Egun batean, eskolako neska batek bere gustuko mutilari musu emateko apustua egin duela kontatuko dio Ihintzak, bere lagun minenak. Hasiera batean unibertsoaren amaiera eragingo zuela iruditzen zitzaion albisteak erabaki garrantzitsu bat hartzeko bultzada emango dio azkenik: Urkori bere maitasuna aitortuko dio. Hala ere, ez da hasieran pentsa bezain erraza izango. Urko konkistatzeko plana burutzean, gurasoen ezkutu-tuan arituko da behin baino gehiagotan, eta, ondorioz, gurasoekin haserreak ere izango ditu. Bere helburua lortzeko bidean, egoera berriak biziko ditu: ezustean institutoko protagonista bilakatuko da, mutil berriak ezagutuko ditu, lehen morkorra harrapatuko du, hainbeste desiotako estreinako musua jasoko du...

Lortuko al du Jarak Urkori bere sentimenduak adieraztea? Zer erantzungo du berak? Nork emango dio hainbeste desio duen estreinako musua?

Zergatik irakurri liburu hau?

Eleberriak oso ondo islatzen du gazteen mundua, haien hizkera, haien interesak eta kezak eta familiarekiko nahiz lagunekiko harremanak. Protagonistak DBHko ikasleak dira; ikasleek erraz identifikatuko dute beren burua haiekin. Jara eta gainontzeko pertsonaien ekintzak behatuz eta baloratuz, beren buruaz eta inguruneaz hausnarketa egitea ahalbidetuko die ikasleei.

Nerabezaroaren gazi-gozoak deskubritzera gonbidatzen duen maitasun kontakizun bizia dakar Jasone Osorok. Narrazioaren harian katigatuta, irakurleak irakurtzen jarraitzeko gogoz geratuko dira liburuko azken orrialdera iristerakoan.

Liburuak gaitasunen garapenari egiten dion ekarpena

ARLOKO GAITASUNAK

Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako gaitasuna

Literatura gozamen-iturritzat hartzea, euskaraz eta haren hizkuntza sistemaz gozatzeko.

Irakurritakoa ulertzea, interpretatzea eta balioestea, norberaren sentsibilizazio estetikoa garatuz.

Ideiak eta sentipenak komunikatzeko gaitasuna garatzea.

Literatura-testua mundua ulertzeko leihua izatea.

Hizkera formala eta lagunartekoa bereiztea eta bakoitza dagokion esparruan erabiltzea, eta euskarak lagun artean komunikatzeko baliabideak eskaintzen dituela ulertzea.

Hainbat testu mota ezagutzea, eta testu bakoitza bere xedearekin lotzea.

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna

Pertsona bakarrak eta konplexuak direla ohartzea, eta zer gaitasun eta muga dituzten jakitea.

Norberaren eta gainerako pertsonen nortasuna onartzea, norbanakoen arteko desberdintasunak eta pribatutasuna errespetatzeko, eta bere buruaren eta ikaskideen ikuspegi zuzena edukitzeko.

Sentimenduak eta emozioak egoki adieraztea, eta elkarrizketa eta bitartekotza erabiltzea gatazkei heltzeko.

Eguneroko bizitzan emakumeak gutxien eta baztertzen dituzten jarrerak arbuiatzea.

Zientziarako gaitasuna

Norberaren gorputzaren funtzionamendua eta gorputzak jasaten dituen aldaketen zergatia ulertzea.

Arterako gaitasuna

Musika gozamen-iturritzat hartzea.

ZE HAR-GAITASUNAK**Elkarbizitzarako gaitasuna**

Gelako ikaskideen eta lagun taldeko pertsonen artean egon daitezkeen desberdintasunak errespetatu, ulertu eta aintzat hartzea.

Adiskidetasunaren eta pertsonen arteko harreman positiboaren onuraz jabetzea.

Elkarbizitzaren arauak betetzea, gizarte-harremanetan ongizatea eta harmonia sustatzeko.

Ekimenerako eta ekintzaile-sena garatzeko gaitasuna

Geure burua ezagutzea, banako gisa dugun ahalmen guztia baliatzeko eta zailtasunei aurre egiten jakiteko.

Ahalegina egitea eta ikastea nor bere burua gainditzeko tresnatzat hartzea.

Erronka berrien aurrean, ekimenez jardutea eta prozesu ekintzailea era ausart eta eraginkorrean burutzea.

Izaten ikasteko gaitasuna

Erabakiak hartzean, ekintzen ondorioak bere gain hartzeko ardura garatzea.

Balioetan hezte

Nerabezaroa aro gorabeheratsua da. Liburuko protagonistek emozioak puri-purian dituzte, oso sentiberak dira, hauskorrak. Egoera berriei aurre egin beharrean aurkituko du Jarak bere burua, eta bidea maldan gora jartzen zaionean, gurasoengan eta batez ere lagunarengan bilatuko du aurrera egiteko behar duen bultzada.

Egoera berrien aurrean, erabakiak hartu eta erronkei aurre egiten ikasi beharko du, eta horrek guztiak bere burua hobeto ezagutzen eta pertsona bezala hazten lagunduko dio.

JARDUEREN PROPOSAMENA

Irakurri eta ulertu

Jara • 1. jarduera

Liburuaren azala aztertzea iradokitzen dugu, ikasleak beste adierazpen-hizkuntza batzuekin treba daitezen, zehazki hizkuntza piktorikoarekin: Zer irudi aukeratu da? Egokia iruditzen al zaie eleberriaren edukia adierazteko? Horrelakoa imajinatzen al zuten Jara? Eta izenburua? Egokia iruditzen al zaie? Horretaz gain, liburuaren edukia kontuan hartuta azalaren bi atal nagusienetarako proposamenak egin beharko dituzte: irudi eta izenburu berri bana.

Gaur egungo munduan, funtsezkoa da hizkuntza bisuala eta plastikoa behar bezala ulertzea: publizitateak, zinemak eta telebistak irudien bidez komunikatzen dituzte beren mezuak, eta hartzaileak ez du beti jakiten mezu horiek nola interpretatu. Proposatutakoa bezalako jarduerak aproposak dira ikasleak mezuak irakurtzen eta behar bezala interpretatzen trebatzeko.

Une erabakigarriak • 2. jarduera

Fitxa honi esker, ikasleek argumentua ulertu duten egiaztatuko dugu. Lehenik, narrazioko gertaera nagusiak (eleberriaren garapenean funtsezkoak direnak) nola ebatzen diren azaldu beharko dute. Ondoren, argumentuaren korapiloan funtsezkoak diren beste bi gertakari proposatu eta azaldu beharko dituzte.

Jarduera honetan, irakurmena eta laburbiltzeko gaitasuna landuko dituzte ikasleek.

Zenbait testu mota • 3. jarduera

Ohikoa da testu baten barruan zenbait testu mota agertzea: deskribapena, narrazioa, elkarrizketa, azalpena, argudioa... Funtsezkoa da testu mota horiek bereiztea eta nola eraikitzen diren ulertzea (haien hizkuntza-ezaugarri nagusiak), irakurlea trebatzeko: deskribapen-pasarte bateko adjektiboen aukeraketaz, elkarrizketa bizi batez edo ondo eraikitako narrazio batez gozatzeko, beharrezkoa da deskribapenak, elkarrizketak eta narrazioak zer mekanismoren bidez eraikitzen diren jakitea.

Eleberrian gailentzen diren testu motak (narrazioa, deskribapena eta elkarrizketa) banan-banan aztertuko ditugu, ariketa mota desberdinen bidez: test motakoak, liburuan adibideak bilatzekoak, galdera irekiak... Azken galderan, eleberriko pertsonaien hizkera aztertuko dute. Lagunekin erabiltzen dituzten eta gazte hizkeraren bereizgarriak diren hitz horiei buruz galdetuko diegu: Zer hitz erabiltzen dute neska edo mutil batek itxura ona duela adierazteko? Nola esaten

diote ligatzen aritzeari? Eta barre asko egiteari? Nola adierazten dute nazkatuta daudela?... Gerta liteke, proposatutako galderei erantzutean, ikasleek gazteleratik datozen hitzak aipatzea. Guk, euskarazko esamolde batzuk proposatuko dizkiegu haien ordezt: mutil trastea, neska katxarroa, katotan ibili, neska/mutiletan ibili, malkoa dariola barre egin, barrez ito, kokoteraino/ipurtzuloraino egon...

Jarduera honen helburua irakurmena lantzea da, eta formari eta egile baten estiloa osatzen duten elementuei buruz hausnartzea.

Nor da nor? · 4. jarduera

Eleberri hau ulertzeko funtsezko gakoetako bat da pertsonaiak nolakoak diren eta elkarren artean zer-nolako harremana duten jakitea, pertsonaien motibazioak eta jokabidea ulertzeko.

Jarduera honetan, ikasleek pertsonaien artean zer harreman dagoen idatziko dute, eta pertsonaia bakoitzaren ezaugarri bereizgarrienak zein diren azaltzen saiatuko dira. Azkenik, pertsonaia bat sortu beharko dute, eta hau guztia zehaztu: zer izaera duen, zer eginkizun duen argumentuaren garapenean, zer harreman duen besteekin...

Horrela, hainbat alderdi lantzeko aukera ematen duen jarduera bat planteatzen da: irakurritakoaren ulermena, pertsonaiak eratze modua (narrazioaren elementue-tako bat da hori), idazmena eta sormenaren garapena.

Sentimenez blai · 5. jarduera

Jarak eta Ihintzak 13 urte dituzte. Aro zail batean sartzen hasi dira, eta sentimen-duak korapilaturik, borborka dituzte, eztanda noiz egin zain. Jarduera honetan, liburuko zenbait pasarte irakurri eta une bakoitzean nola sentitzen diren asmatu beharko dute ikasleek.

Ondoren, denon artean, jarduerako sentipen bakoitza modu beretsuan azaltzeko esaldiak asmatuko ditugu.

Hala dio esaerak... · 6. jarduera

Eleberrian, zenbait esaera ageri dira. Testuingurua baliatuz, ikasleek beren hitzak erabiliz esaera horien esanahia asmatu eta azaldu beharko dute.

Jakintzat eman ohi dugu gazteek behar bezala ulertzen dituztela mota honetako esaerak. Dena den, maiz, dakitena ez da zuzena, eta horien esanahia zehaztea ko-meni da.

Maitasun mezua · 7. jarduera

Jarduera honen helburua jolas-jarduera baten bidez irudimena eta idazmena lantzea da. Lehenik, mezuan bertan azaldu bezala, benetako mezua osatzen duten hitzak identifikatu eta inguratu beharko dituzte: 3. hitza, *korronteak*; 28. hitza, *Beti*; 43. hitza, *zure...* *Korronteak beti zure kostaldera narama* da bilatu beharreko esaldia.

Hori egin eta gero, maite duten pertsonarentzat antzeko mezu sekretu bat prestatzeko eskatuko diegu ikasleei. Hartara, pentsamendu logikoa landuko dugu ikasgela barruan, eta eskolaren amaieran jarduera lasaigarri bat egin, denbora-pasa dibertigarri batekin.

Jarduera honek, «piropoen» inguruan eztabaidatzeko aukera ere emango digu: Horrelako esaldi bat ezkututzen duen mezua jasotzea gustatuko litzaizueke? Piropoak jasotzea gustatzen zaizue? Gertatu al zaizue noizbait kalean zoaztela norbaitek lausenguren bat botatzea? Nola sentitu zineten?

Liburuko 119. eta 120. orrialdeetako pasarte hau irakurriko dugu:

«...pasilloan bera baino nagusiagoa zen mutil kuadrilla baten paretik pasatu zenean entzun zuenak egonezina eragin zion:

—Nahi nuke nik zure bihotza zulatzen duen arantza izan.

—Utziko zeure landaretxoa ureztatzen?

—Beltza kolore bihurtu zen ezagutu zintudanean.

Jara lotsagorritu egin zen mutil haien komentarioak entzutean».

Guztion artean, irakurritakoaren hausnarketa egingo dugu: Zer iruditzen zaizue mutilek esandakoa? Zuen ustez, nola sentitu zen Jara une hartan? Nola sentituko zinatekete zuek egoera horretan?

Ikertu

Hilekoa

Eleberriaren lehen kapituluan, Jarak egoera delikatu baten aurrean aurkitzen du bere burua. Esnatzean kuleroak gorritz tindatuak dituela ikusten du, eta berehala hilekoa jaitsi zaiola ulertzen du. Jakintzat eman ohi dugu gazteek badakitela hilekoa jaisteak zer suposatzen duen, baina askotan, are gehiago mutilen kasuan, oso informazio gutxi eta okerra izan ohi dute. Hilekoa ume izateari utzi eta emakume bihurtzen hastearekin eta tripako minekin lotu ohi dute gazteek. Baina ba al dakite benetan zer den hilekoa eta zergatik jaisten den? Taldeka, hilekoari

buruzko informazioa bilatzeko eskatuko diegu, eta bildutako informazioari buruz hitz egingo dugu:

- Zer da hilekoa?
- Zergatik dute emakumeek hilekoa?
- Zenbatero jaisten da? Zenbat egun irauten du?
- Zein dira hilekoak eragin ahal dituen sintomak?

Ondoren, liburuko 102. orrialdeko pasarte hau irakurriko dugu:

«—Badakit! Esaiozu irakasleari hilekoarekin zaudela eta tripako mina daukatzula. Gizonak urduritu egiten dira gauza horien aurrean eta ez dizu ezetzik esango —aholkatu zion Ihintzak.

—Hilekoa dudala? Keba, gela osoak jakingo du zer gertatzen zaidan eta ez daukat gogorik inoren ahotan egoteko.

—Bai, egia esan, niri ere lotsa emango lidake mutilek jakitea hilekoa daukadala —aitortu zion Ihintzak».

Segidan, liburuko pasarte hori aztertuko dugu, honako galderak eginez: Zuen ustez, zergatik kostatzen zaie neskei hainbeste hilekoaz hitz egitea? Zergatik sorrarazten du halako lotsa? Egia al da mutilak urduritu egiten direla hilekoaz hitz egitean? Zergatik uste duzue gertatzen dela hori?

Jarduera honen helburua, hilekoaren inguruko tabua haustea, gaiari pisua kentzea eta gazteek zikinkeria eta lotsarekin ez erlazionatzea da.

Lolita bat dirudit

Liburuko 134. eta 135. orrialdeetako pasarte hau irakurriko dugu:

«—Nagusiagoa ematen dut.

—Morboa, neska.

—Lolita bat dirudit.

—Lolita polita».

Ikasleei *lolita* hitza aztertzeko eskatuko diegu: Zer da lolita bat izatea? Nondik dator lolita izena? Ikasleak taldetan banatuko ditugu, hitz horri buruzko informazioa bila dezaten entziklopedietan eta webguneetan (iturri fidagarriak kontsultatzea behar-beharrezkoa dela azpimarratuko dugu). Hori egin ondoren, talde bakoitzak lortutako informazioa landuko du.

Ondoren, *Lolita* Vladimir Nabokov idazlearen liburuari buruz hitz egingo dugu. Eleberriak, adin ertaineko gizon batek nerabe batekiko duen obsesioaz hitz egiten du. Argumentua aitzakia hartuta, hausnarketa egingo dugu: Zer iruditzen zaie adin horretako gizon bat nerabe batengatik erakarria sentitzea? Posible al da? Eta alderantziz, nerabe bat adin horretako pertsona batengatik erakarria sentitzea?

Maitasunak ba al du adinik? Ezagutzen dute beraien artean adin tarte handia duen bikoterik? Bikotekideen arteko adin diferentzia handia bada ondo joan al daiteke harremana?

Eztabaidatu

Familia

Eleberriak edozein nerabek gurasoekin izan dezakeen harremanaren gazi-gozaok erakusten dizkigu. Bere unibertso txikiko gertaerek eraginda, Jara gurasoen ezkutuan eta errebelldiaz jokatzeko hasi da, eta gurasoek askotan ez dutela ulertzen eta bere kontra ari direla iruditzen zaio. Liburuko 66. eta 67. orrialdeetako pasarte hau irakurriko dugu:

«Zergatik egin zion hori aitak. Ez al zuen ulertzen zeinen garrantzitsua zen berarentzat asteburua herrian lagunekin pasatzea? Ez al zion azaldu amak? Agian amak ere ez zuen ulertzen Jarak zer sentitzen zuen. Triste sentitu zen, triste eta bakarrik. (...) Une hartan, ahal izan balu, alde egingo zuen etxetik. Baina nora? Nondik biziko zen? Ez, oraindik hamahiru urte zituen, nahi eta nahi ez. Eta hori muga handia zen. Arazoak besterik ez zituen ikusten bere inguruan: hilekoa, gorputzaren aldaketak, Urko harrotuta, Amaiaren apustua eta... orain, gurasoak ere kontra zituen».

Irakurri ondoren, eztabaida prestatuko dugu, galdera sinple batzuk eginez: Jarak eta bere gurasoek harreman ona dutela iruditzen zaie? Jarak eta gurasoek izan dituzten haserreetan (landetxea, tatuajea...), gurasoek ongi jokatu dutela uste duzue? Nola jokatu zenukete zuek Jararen gurasoak izan bazinate? Erraza iruditzen al zaizue guraso izatea? Jarak bere kezka zein diren azaldu balie, gurasoek alaba hobeto ulertuko luketela uste duzue? Eta zuek? Gurasoei dena kontatzen diozue ala bakarrik lagunekin partekatzen dituzuen sekretuak dituzue?

Ahalegina egingo dugu ikasleek iritzi guztiak entzun eta errespetuz adieraz ditzaten. Amaitzeko, banan-banan aipatuko ditugu taldeak ateratako ondorioak.

Itxurakeriak

Eleberriko pertsonaiek garrantzi handia ematen diote beren irudiari eta besteek beraietaz uste dutenari, eta horrek hainbat ekintza burutzera bultzatuko ditu: Urkoren piercinga, Jararen tatuajea... Eztabaida pizteko, zenbait galdera proposatuko dizkiegu:

- Piercingak, tatuajeak, orrazkera, janzkera... Zer dago horren atzean? Zergatik aukeratzen dituzue, gustuko dituzuelako ala besteei gustatzeko?

- Arropak erostean, zer hartzen duzue kontuan? Zer adierazi nahi dute gazteek beren itxurarekin?
- «Jarak Urko konkistatzeko emakume heldua izan behar zuela pentsatu zuen, eta horregatik egin zuen tatuajea». Zer iruditzen zaizue Jarak egindakoa? Zuek ere horrela jokatuko zenukete? Zergatik?

Ondoren, liburuko 17. eta 121. orrialdeetako pasarte hauek irakurriko ditugu:

«Urkok bere kabuz erabakia hartu eta piercinga egiteko ausardia izatea miresgarria iruditzen zitzaien. Bat-batean, gelako idolo bihurtu zen Urko».

«–Neska, zeu zara protagonista! Eskola osoan ez dago beste komentariorik: Jara eta bere tatuajea».

Eztabaidarekin jarraituko dugu: Zergatik miresten dituzte ikaskideek Urko eta Jara? Zer iruditzen zaizue Urko eta Jara piercing bat edo tatuaje bat egiteagatik ikaskideen idolo bihurtzea? Zuen lagunartean ere berdina gertatzen al da?

Sortu

Bideoklipa

Australopitekus taldearen antzera, bideoklip bat grabatuko dute ikasleek. Guztien artean egokia den abesti bat aukeratuko dute, eta irudiek Jara eta gainontzeko pertsonaiek bizitako une erabakigarrienak erakutsiko dituzte. Horretarako, taldetan banatuko dira: batek gidoia egingo du; beste batek grabatzeko lekuak bilatuko ditu; beste bat ekoizpenaz eta jantziez arduratuko da... Denen artean zuzendaria aukeratuko dute, eta rolak banatuko dituzte. Azkenean, sakelako telefono batekin edo argazki-kamera arrunt batekin, bideoklipa grabatuko dute.

Irakaslearen lana zereginak antolatzea eta esleitzea da, eta behar bezala betetzen direla ikustea. Gogora dezagun talde-ikaskuntza elkarrekintzan eta kide guztien elkarpenetan oinarritzen dela. Horrela, beste balio batzuen artean, ikaskuntzarekiko eta besteekiko konpromisoa lantzen da, eta horri esker, lehiarik gabeko harremana sortzen.

IZENA: MAILA:

JARA

Jasone Osoro

1. Jara

Erreparatu liburuaren azalari eta erantzun.

- Zer iradokitzen dizu azalean ageri den neskak?

.....

.....

.....

- Zuk irudikatutakoa bezalakoa al da Jara? Zergatik?

.....

.....

.....

- Azaleko irudia, eleberriak jorratzen duen gaiarekin eta argumentuarekin bat datorrela uste duzu?

.....

.....

.....

- Zer beste irudi jarriko zenuke azalean? Deskribatu nolakoa den zuk aukeratutako irudia ahalik eta zehatzen.

.....

.....

.....

.....

- Izenburua aproposa iruditzen al zaizu? Azaldu zergatik, eta asmatu beste izenburu bat libururako.

.....

.....

.....

IZENA: MAILA:

JARA

Jasone Osoro

2. Une erabakigarriak

- Azaldu gertakari hauek zer ondorio duten eleberriaren garapenean.

1. Jarari hilekoa jaitsi zaio.

.....

.....

2. Ihintzak Amaiaren apustuaren berri eman dio Jarari.

.....

.....

3. Jararen gurasoek asteburua landetxean igarotzeko plana antolatzen dute.

.....

.....

4. Jara Xoko konkistatzeko aholku eske joan zaio Urkori.

.....

.....

5. Jarak tatuaje bat egiten du.

.....

.....

6. Jara eta Ihintza Jazz eta bere lagunekin elkartu dira Anabasa tabernan.

.....

.....

- Aukeratu zure ustez argumentuaren korapiloan funtsezkoak diren beste bi gertakari, eta azaldu zergatik aukeratu dituzun.

.....

.....

.....

.....

.....

IZENA: MAILA:

JARA

Jasone Osoro

3. Zenbait testu mota

Eleberri honetan, hiru testu mota bereizten dira: narrazioa, deskribapena eta elkarrizketa. Banan-banan aztertuko ditugu.

- Narrazioa. Irakurri pasarte hau eta erantzun galderei:

«Hain segundo gutxitan sekula ez zuen bere ohea, gela eta burua batera txukundu. Nola edo hala dena itxuratu zuen. Baina, zertara zetorren Urko? Telefonoz deitu omen zion. Zertarako? Zer esan nahi zion? Eta orain etxean zegoen, bere etxean, bere logelan. Eta Jara inoiz baino itsusiagoa, ez top motzik, ez karminik ez...».

1. Nork kontatzen du istorioa?

☐ Jarak

☐ Ihintzak

☐ Hirugarren pertsona batek

2. Zein narratzaile mota da?

☐ Orojakilea: pertsonaiek egiten dutena ez ezik, pentsatzen eta sentitzen dutena ere ezagutzen du.

☐ Objektiboa: pertsonaien ekintzak baino ez ditu azaltzen.

3. Aurkitu zure erantzunekin bat datorren beste adibide bat liburuan:

.....

.....

.....

- Deskribapena. Aurkitu liburuan deskribapen mota bakoitzeko beste adibide bat, eta kopiatu:

Pertsonaia baten deskribapena	
Eta hantxe, gelaren sarreran, Jazz ikusi zuen. Bera baino hiru urte nagusia goa zen mutila, eskolako guapoena, musika talde bateko abeslaria zena, neska guztien ametsa (122. or.).	
	
	
	
	
	

IZENA: MAILA:

JARA

Jasone Osoro

3. Zenbait testu mota (jarraipena)

Sentimendu baten deskribapena	
Aaaaaaaa! Ezin zuen. Zaldi lasterketa eztarritik gora zebilen eta zaldiek ahotik ihes egingo zuten une batetik bestera. Zein leloa zen! Zein konfiantza gutxi zeukan bere buruarengan! (73. or.).	
	
	
	
	
	
	

- Elkarrizketa.

1. Aurkitu bereziki gustatu zaizun elkarrizketa bat. Adierazi zer orrialdetan dagoen, eta esan zergatik gustatu zaizun.

.....

.....

.....

.....

.....

2. Eleberriko pertsonaiek hizkera bizia darabilte. Aurkitu liburuan gazte hizkera kutsua duten bi hitz edo esamolde. Ondoren, idatzi zuk zure lagunekin erabiltzen dituzun antzeko hitzak.

.....

.....

.....

.....

.....

IZENA: MAILA:

JARA

Jasone Osoro

4. Nor da nor?

Osatu taula, pertsonaia hauek Jararekin eta gainontzeko pertsonaiekin zer lotura duten azalduz, eta azaldu nolakoak diren, zure ustez pertsonaia bakoitzaren ezaugarri esanguratsuenak zein diren adieraziz.

Ihintza
.....
.....
.....
Urko
.....
.....
.....
Amaia
.....
.....
.....
Jazz
.....
.....
.....

Asmatu pertsonaia bat, istorioan parte har dezakeena. Azaldu nolakoa den, zer harreman duen gainerako pertsonaiekin eta zer eginkizun duen argumentuan.

.....

.....

.....

.....

.....

IZENA: MAILA:

JARA

Jasone Osoro

5. Sentimenez blai

Jarak eta lhintzak oso modu poetikoan deskribatzen dituzte beren sentimenduak. Nola sentitzen dira liburutik ateratako pasarte hauetako bakoitzean? Lotu.

- | | |
|---|---|
| 1. «Eguzkiak zerbait berezia sentiarazten zion azalean, izpirik indartsuenak ezpata balitz bezala alderik alde zeharkatu izan balu bezala». (31. or) | ☐ Beldurtuta |
| 2. «...bihotzak lehertu eta aurpegian joko zuela iruditzen zitzaion». (72. or) | ☐ Urduri |
| 3. «...barruan hartxo bat bezala daukat eta esaten ez badiot hesteak eta bestelako guztiak irentsiko dizkit». (78. or) | ☐ Erakarria |
| 4. «...oinak ohi baino astunago, pisutsuago sentitu zituen. Ibilera baldarra zeukan, hankek ez zioten kasurik egiten, aurrera joan nahiko ez balute bezala». (82. or) | ☐ Boteretsu |
| 5. «...Edurne Zuriren sorginaren sagarra baino gorriago jarri da!». (128. or) | ☐ Lotsatuta |
| 6. «Positiboak eta negatiboak elkar jotzen dutenean sortzen den elektrizitatea izan zen». (155. or) | ☐ Grinatsu/
Gogotsu |

6. Hala dio esaerak...

Azaldu, zure hitzak erabilita, zer esan nahi duten liburuan ageri diren esaera hauek. Behar izanez gero, bilatu liburuan, zer testuingurutan esaten diren gogoratzeko.

«Ona, ona... baina gizona». (101. or)

.....

«Printzea topatzeko apoa musukatu behar da lehenik». (151. or)

.....

«Ekaitzaren ostean, barea». (159. or)

.....

IZENA: MAILA:

JARA

Jasone Osoro

7. Maitasun mezua

- Demagun norbaitek mezu hau utzi dizula koaderno barruan. Irakurri arretaz eta jarraitu argibideei mezu sekretua ebazteko.

Klima eta korronteak

Euskal Herriko eguraldia itsaslaster bero baten menpe dago. Hori bai, urtean ehun eta berrogei egun euritsu izan ohi ditugu batez beste. Beti euripean... eta beti umore txarrean? Ikerketa baten arabera, klimak eragina dauka gure izaeran. Nolako eragina du eguraldiak zure aldartean?

Hegoaldean izaten dituzte prezipitazio kopuru baxuenak. Kostaldera jotzen badugu, berriz, prezipitazioen kopurua ia bikoiztu egiten da. Honek, hausnarketa egitera narama: kostaldekoek umore petralagoa al dute?

(Inguratu 3., 28., 43., 51. eta 64. hitzak, eta irakurri!)

- Iritsi al zaizu mezua? Orain zure txanda da! Bidali antzeko mezu bat maite duzun pertsonari. Horretarako, lehenik, pentsatu piropo edo maitasun esaldi labur bat, eta idatzi hemen:

.....

- Orain, mezua sekretua izan dadin, tartekatu esaldi horretako hitzak zuk asmatutako testu batean. Ez ahaztu igorleari irakurri beharreko hitzak zein diren adieraztea!

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

IZENA: MAILA:

JARA

Jasone Osoro

Irakurmen-testa

Galdera hauetako bakoitzean, aukeratu egokia iruditzen zaizun erantzuna, eleberria ondo ulertu duzun ikusteko.

1. Jarari hilekoa jaitsi zaio. Nori kontatu dio?

- ☐ a Aitari eta amari.
- ☐ b Amari eta Ihintzari.
- ☐ c Eskolako lagun guztiei.

2. Zer oparitu dio amak egun berean?

- ☐ a Esanahi berezi bat daukan lepoko bat.
- ☐ b Praka gorri estu batzuk eta top txuri bat.
- ☐ c Sexualitate gida bat.

3. Atzera eta aurrera ibili ondoren, Jarak asteburua beraiekin batera landetxean pasatuko duela erabaki dute gurasoek. Zergatik hartu dute erabaki hori?

- ☐ a Oraindik hamahiru urte dituelako eta ez zaielako iruditzen adin egokia denik nahi duena egiteko.
- ☐ b Mutil konturen bat tartean dela susmatzen dutelako.
- ☐ c Jararen azken egunetako jokaera zigortu nahi dutelako.

4. Nor da Xoko?

- ☐ a Jarak landetxean ezagututako mutil bat.
- ☐ b Urko jeloskor jartzeko Jarak asmatutako mutil-lagun imajinario bat.
- ☐ c Eskolako mutilik guapoena.

5. Jarak Urkori ohartxo bat idatzi dio berarekin batu zedin, baina zitara heldu denean, Zipri besterik ez du aurkitu. Zer gertatu da?

- ☐ a Hanka-sartze baten ondorioz, Zipriren koadernoan utzi du ohartxoa.
- ☐ b Urkok bere ordezkari joateko eskatu dio, berari lotsa ematen baitio.
- ☐ c Urkok bere ordezkari joateko eskatu dio, berak jada neskalaguna duelako, Amaia.

IZENA: MAILA:

JARA

Jasone Osoro

6. Amaiak apustua irabaztea lortu du?

- ☐ a Ez, Urkok ez dio musurik eman nahi izan.
- ☐ b Ez, Jara aurreratu egin zaio.
- ☐ c Bai, Urkori musu eman dion lehen neska izan da Amaia.

7. Zergatik egin du Jarak tatuajea?

- ☐ a Gurasoei heldua dela eta handik aurrera erabakiak berak hartuko dituela erakutsi nahi dielako.
- ☐ b Urkok neska ausartak gustatzen zaizkiola esan diolako.
- ☐ c Urko konkistatzeko emakume heldua izan behar duela pentsatzen duelako.

8. Zergatik bihurtu da Jara eskolako protagonista?

- ☐ a Jazz, eskolako guapoena, bila joan zaiolako.
- ☐ b Tatuaje bat egin duelako.
- ☐ c Hilekoa jaitsi zaiolako.

9. Jazz eta bere taldekideekin Anabasa tabernan geratu ondorengo biharamunean, buruak eztanda egingo diola iruditzen zaio Jarari. Zergatik?

- ☐ a Ihintzarekin haserre dago, Jazzekin enrollatu delako.
- ☐ b Urkok bera eta Amaiaren artekoa serioa dela esan diolako.
- ☐ c Kalimotxoak gaitz egin diolako eta gaizki sentitzen delako.

10. Nolakoa iruditu zaio Jarari bere estreinako musua?

- ☐ a Ez zaio iruditu hainbesteraino izan denik.
- ☐ b Igurtzi baten antzekoa, polita.
- ☐ c Polita, baina nahiago luke bere lehen musua Jazzek eman beharrean, Urkok eman izan balio.

Erantzunak

JARA

Jasone Osoro

1. Jara

- E.E.: Azaleko irudiak gazte adoretsu bat erakusten du. Haizeak ilea aztoratzen dion bitartean irakurleari zuzenean begietara begiratzen dio, «hemen nago, Jara naiz» esan nahiko balu bezala.
- E.L.
- E.L.
- E.L.
- E.L.

2. Une erabakigarriak

- E.E.: 1. Jara bere burua desberdin ikusten hasiko da. Emakume bihurtzen ari da, eta erronka berriei aurre egiteko gogoz egongo da. / 2. Jarak Amaiari aurea hartu eta behingoz Urkori sentitzen duena esatea erabakitzen du. / 3. Garaziren urtebetetzeko jaia galduko duenez, larunbata aurretik Urkori bere sentimenduak adieraztea erabakitzen du. Ohartxo baten bidez, patioan batzea proposatzen dio. / 4. Urko jeloskor jartzen da, eta Jararekiko dituen sentimenduak agerian uzten hasten da. / 5. Tatuajeak eskola guztiaren atentzioa pizten du, eta, Jazzek bere taldearen bideoklipean parte hartzea proposatzen dio. / 6. Ihintzak eta Jazzek elkar ezagutzen dute eta Jara bakarrik eta ondoezik itzultzen da etxera.
- E.L.

3. Zenbait testu mota

- **Narrazioa:** Hirugarren pertsona batek. Orojakilea: pertsonaiek egiten dutena ez ezik, pentsatzen eta sentitzen dutena ere ezagutzen du.

E.E.: Oraindik gogoan zeukan Urkoren koadernoko izena, «AMAIA». Eta horrek min ematen zion. Bestetik, ez zeukan idearik ere zertan aritu zen Urko arbelean, ez zekien zein ariketa egin zuen. Zer erantzun behar zuen? Gela osoa begira, irakaslea zain, Urko ere bekaineko zintzilikario eta guzti Jarak zer erantzungo esperoan.

Erantzunak

JARA

Jasone Osoro

- **Deskribapena: Pertsonaia baten deskribapena:** (34. or): Txima luze xamarra zen, gaztaina kolorekoa. Kazadora bakeroa eta txandala. Bizkarrean zeraman motxila beltza nahikoa izan zitzaion ustea ziurtatzeko. Mutila Urko zen. **Sentimendu baten deskribapena:** (71-72- or): Beldurtu egiten zen zenbakiak markatzen hasi behar zuela pentsatze hutsarekin. Atzamarrak dardarka zituen eta bihotza tau-padaka, milaka zaldi izango balitu bezala sabelean.
- **Elkarrizketa:** Ze emozionantea!, Espeziala!, Tumatxa!, Haluzinantea!, Iupi!...

4. Nor da nor?

- **Ihintza:** Jararen lagun mina da, eta, amaieran, Jazzen neskalaguna ere bai. Oso adiskide ona da, beti dago Jarari laguntzeko prest. Oso alaia eta dibertigarria da, berritsu samarra ere bai. Maitabera da.
- **Urko:** Jararen ametsetako mutila da. Jara gustatzen zaio, baina kosta egiten zaio Jarari bere maitasuna aitortzea. Besteek berataz pentsatzen dutenari garrantzia ematen dio, eta besteen gustukoa izatea gustatzen zaio. Bere adineko mutilak baino helduagoa da, edo horren itxura eman nahi du behintzat.
- **Amaia:** Ihintzaren ahizparen kuadrillako neska ilehori bat da, Jara, Ihintza eta Urko baino nagusiagoa. Ez du lotsarik eta oso argi du zer nahi duen. Nahiko buru-bero eta ahohandia da.
- **Jazz:** Bere musika taldearen bideoklipean parte hartzea proposatzen dio Jarari, eta, bukaeran, Ihintzarekin amodio-kontuetan hasten da. Jara eta bere gelakoak baino hiru urte nagusiagoa da, eskolako guapoena. Musika talde bateko abeslaria da, neska guztien ametsa.

5. Sentimenez blai

- | | |
|--------------|--------------------|
| 4 Beldurtuta | 1 Boteretsu |
| 2 Urduri | 5 Lotsatuta |
| 6 Erakarria | 3 Grinatsu/Gogotsu |

Erantzunak

JARA

Jasone Osoro

6. Hala dio esaerak...

E.E.

Mutilak egiten badu ondo ikusita dagoela, baina neskak egiten badu ez. Aurretik esandakoari matxismo kutsua dariola adierazi nahi du.

Zure ametsetako neska edo mutila bilatu aurretik, beste batzuk ezagutuko dituzu, agian hain perfektuak izango ez direnak.

Une zailen ondoren, lasaiagoak etorri ohi dira.

7. Maitasun mezua

Korronteak beti zure kostaldera narama.

E.L.

Irakurmen-testa

1 b; 2 a; 3 a; 4 b; 5 a; 6 c; 7 c; 8 b; 9 c; 10 b.